

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

LIMUn gure lana egiteko behar ditugun funtsezko baliabideak hainbat motatakoak dira:

- Tailerra, makinak, materialak eta garraiobideak ditugu, altzariak sortu eta bezeroei eramateko.
- Aplikazioa eta webgunea dira baliabide teknologiko garrantzitsuenak, bezeroei neurriak hartzen eta diseinuak aukeratzen laguntzen dietelako.
- Langileak funtsezkoak dira, haien esku baitago altzarien diseinuaren eta fabrikazio-prozesuaren garapena. Horren baitan, lehentasunez lan-merkatuan zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzea aurreikusiko da, inklusio-politikak aplikatuz, genero-, adin-, desgaitasun- eta kultura-desberdintasunen aurkako diskriminaziorik gabe.
- Barakaldoko Egurraren eta Altzarigintzaren Erdi Mailako Lanbide Heziketako zikloko ikasleak ere gure instalazioetara etorriko dira praktikak egitera, benetako lan-ingurune batean trebakuntza espezializatua eskainiz.
- Diru-iturriak behar ditugu, hala nola maileguak edo aurrezkiak, enpresari eusteko eta hobetzen jarraitzeko.